

## **BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

2019-2023 agintaldia

5. batzarraren AKTA

2023ko martxoaren 16an – 16:45 h

### **BERTARATUAK**

Juan Mari Aburto Rique (Bilboko alkatea, presidentea)

Koldobika Narbaiza Olaskoaga (Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia, presidenteordea)

Xabier Otxandiano Martínez (Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enpleguko zinegotzia)

Marta Ajuria Arribas (Ogasuneko zinegotzia)

Asier Gonzalez Soreasu (EH-Bildu Udal taldea)

Nora Abete García (PSE-PSOE Udal taldea)

Ana Viñals Blanco (Elkarrekin Podemos Udal taldea)

Lierni Lizaso Urrutia (Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendaria)

Xabier Arauzo Uriarte (Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria)

Jokin Gorozika Bidaurratzaga (Labayru Fundazioko ordezkaria)

Jon Maguregi (Bilboko euskaltegietako ordezkaria)

Igor Arenaza Txintxurreta (Athletic Club)

Nerea Ortiz de Pinedo (Athletic Club)

Lutxo Egia del Río (Idazlea eta kultura-sustatzailea)

Mari Jose Arrieta Sagarna (Euskarako zuzendariordea, idazkaria)

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

Gonzalo Olabarria Villota (Kultura eta Gobernantzako zinegotzia)

Alaitz Oribe Torrontegi (EAJ-PBNU Udal taldea)

Mikel Bilbao Elejarcegui (PP udal taldea)

Iñaki Larrañaga Juaristi (Zenbat gara elkarteko ordezkaria)

Goizalde Landabaso Etcheverry (Kazetaria)

Miren Agur Meabe (Idazlea)

Ainara Aretxabaleta (Uztarri Kultur Elkarteko ordezkaria)

Andrés Urrutia Badiola (Euskaltzainburua)

Olatz Elgea Lopez Cano (Bilbao Dendak elkarteko ordezkaria)

Jon Simón Gartzia Legarreta (Eusko Jauriaritza - Hezkuntza Saila)

## IDAZKARITZA TEKNIKOA

Ziortza Artabe (Labayru Fundazioa)

## GONBIDATUAK

Soziolinguistika Klusterra:

- Imanol Larrea

Juan Mari Aburto presidenteak ongietorria eman die bertaratuei.

Bilerarako gonbidapena korreo elektronikoz jaso zuten batzordekideek eta horrekin batera gai-zerrenda eta 2022ko uztailaren 6an egin zen bileraren akta ere bai. Gainerako materiala bileran bertan banatu zaie. Honako dokumentuak dira:

- Bilboko Udalak Soziolinguistika Klusterrarekin hitzartuko dituen ikerketa-egitasmoak: Bilboko guraso gazteen ikerketa eta *Euskara kirolkide* ikerketa.
- Udalaren euskara ikasteko dirulaguntza-deialdiaren berrikuntzak 2023rako.
- Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren ebaluazioari buruzko azalpena.
- Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak dokumentua dela eta, udal erakundeei egin zaizkien aurkezpenari buruzko informazioa.

## GAI-ZERRENDA

### 1.- AURREKO BILERAREN (2022-07-06) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren akta onartu egin da.

### 2.- BILBON EUSKARA BIZIBERRITZEKO BI IKERKETA-EGITASMOEN AURKEZPENA: GURASO GAZTEAK ETA GAZTEEN KIROLA

Koldo Narbaizak, Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotziak, Bilboko Udalak Soziolinguistika Klusterrarekin hitzartuko dituen bi ikerketa egitasmoak aipatu ditu. Kirol eremukoa Bilbao Kirolak udal erakundeak hartuko du bere gain, eta gurasoen eremukoa, berriz, Euskara eta Hezkuntza Sailak. Ondoren, hitza eman dio Imanol Larreari, Bilbon euskara biziberritzeko egingo diren bi ikerketa-egitasmo horiek aurkez ditzan.

Hasteko, Imanol Larreak esan du, kale-neurketa egin ondoren, Euskara eta Hezkuntza Sailaren eskariz, ikerketa-eremuak aztertzeko konpromisoa hartu zutela. Bazituzten zenbait ideia buruan, eta hortik bideratu zituzten proposamenak. Kale-neurketaren emaitzetan argi ikusi zen Bilbon egiteko asko zegoela, baina, euskararen erabilerari begira, **potenzialitate handiko bi eremu** zeudela ohartuta, haiei lehentasuna ematea proposatu zuten:

- Gazteen kirola
- Guraso gazteak

Euskara eta Hezkuntza Sailak ondo ikusi zuen ikerketa-eremu horietan lan egitea eta horrela eman zitzaizen hasiera ikerketa-egitasmoei: *Euskara kirolkide* eta guraso gazteekin egingo den ikerketa.

Lehenik eta behin, **Euskara kirolkide** proiektuaz hitz egin du. Egitasmoa 2020tik dago martxan, eta 2016an abian jarri zen “D ereduko kirola” ikerketa-ekintza proiektuaren jarraipena litzateke. Eskolatik kanpo euskaraz funtziona dezaketen esparruak, **babesguneak**, **sortzea** bultzatu nahi da proiektuarekin. Honako hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:

- **Kluba euskararen babesgune gisa definitzea:** euskararentzako kirol-aisialdi babestua zertan datzan zehaztea, kirol klubaren ikuspegitik.
- **Edukia kirol klubekin batera lantzea:** definizio hori kirol eremuan parte hartzen duten eragileekin edo protagonistekin kontrastatzea edo testatzea.
- Euskararen babesgune izateko norabidean, kirol klubentzat baliagarri izan daitezkeen **material edo tresna praktikoak sortzea.**

Proiektuaren garapenean hiru fase bereizten direla azaldu du Larreak. Lehenengo fasean, kirola, oro har, eta, bereziki, klubaren egitura **babesgune gisa izendatzeko oinarritzko elementuak identifikatu** ziren. Bigarren fasean, berriz, **lanketa teorikoan identifikatutako elementuak kontrastatzeari ekin** zitzaion.

2023. urtean, hirugarren faseari ekingo zaiola adierazi du Imanolek. Fase horretan, kirol klubek hizkuntzari lotutako **prozesu kontziente bat martxan jartzea** bilatzen da. Bost urrats zirkular identifikatu dituzte prozesuan klubei laguntzeko:



Ikerketa-egitasmo honetako helburuak behar bezala betetzeko, proiektuan zehar honako eragile hauen parte hartzea sustatu nahi da:

- Ikerketaren zuzendaria eta unibertsitateko ikerlariak (UPV/EHU)
- Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoa
- Erakunde finantzazaileretako arduradunak eta (euskara zein kirol) teknikariak
- Kirol arloan hizkuntza gaiei erreparatzen dien aholkulariak
- Kirol zerbitzuak eskaintzen dituzten aholkularitza-enpresak
- Soziolinguistika Klusterreko bazkideak (uneotan kirol arloan proiekturen bat martxan dutenak)
- Kluba dagoen herriko udal (euskara zein kirol) arduradunak eta teknikariak
- Kirol klubak edo federazioak, herrietako euskara elkarten ordezkariak
- Tresna praktikoak sortzeko bidean, gazteak-komunikazioa-pedagogia eremuko aholkulariekin ere harremanetan egotea ere aurreikus daiteke

Larreak esan duenez, laster izendatuko dira proiektuan parte hartuko duten Bilboko bi klubak, eta urte bukaerarako hainbat emaitza prest izatea espero da.

Bukatzeko, proiektuaren zuzendaria Jone Miren Hernández García (UPV/EHU – AFIT Ikerketa-taldea) dela esan du, eta egitasmoa behar bezala garatzeko, hiru lantalde dabilzala lanean:

- **Garapen-taldea:** proiektuaren (bere osotasunean) jarraipenaz arduratzen da, ikerketaren eta aplikazio praktikoaren ildoaz.
- **Ikerketa-taldea:** ikerketaren ildoak jorratzeaz arduratzen da.
- **Aholkulari-taldea:** tresna praktikoak proposatzen dituen urratsak kirol klubekin emateaz arduratuko da.

Azalpenaren ondoren, Juan Mari Aburtok zera galdetu dio: euskararen egoera berdina da kirol guztietan?

Imanolek esan dio ezaugarri desberdinak dituztela klubak arabera; izan ere, “babesgune” kontzeptuak Gasteizko frontoi batean du jatorria. Gazte batzuei elkarrizketak egiten zizkieten, eta esaten zuten Gasteizen eskolatik kanpo euskaraz hitz egiteko leku bakarra pilota-taldea zela. Han, euskaraz aritzeko babestuta sentitzen ziren gazteak. Hortik sortu zen “babesgune” kontzeptua. Beraz, pilota eta euskara lotuta daudela dio. Gasteizen, hizkuntzaren kontuan, errugbi taldea ere oso aktiboa zela ikusi zuten. Dena dela, Imanolek tresna hau edozein klubetarako baliagarria izatea nahi dutela azpimarratu du.

Jarraian, Ana Viñalsek egin du galdera: Zein izango dira klubak aukeratzeko irizpideak?

Proba pilotuak direnez, mugatu beharra dagoela erantzun dio Larreak. Badakite kirol nagusia futbola dela, baina hortik alde egingo dute. Generoa ere kontuan izango dute, baita hizkuntzarekiko konpromiso-maila ere. Banatutako txostenean, 7.2.1 puntuan zehazten dira erabiliko diren irizpideak.

Bigarren ikerketaren helburua, **Guraso gazteak eta euskara** izenekoa, haur txikiak dituzten guraso gazteen hizkuntza **praktikak, iritziak, bizipenak** eta **harreman-sareak ezagutzea** eta euskararen **erabilera areagotzeko aukerak** identifikatzea da.

Imanolen hitzetan, guraso gazteek **hizkuntza-sozializazio prozesuan paper garrantzitsua** jokaten dute eta, une honetan, **euskara biziberritzearen alde ekarpen handia** egin dezakete. Horrexegatik aukeratu dute talde hori.

Bilbo osatzen duten zortzi barrutietatik bi aztertuko dira. Barruti horietan bi eremu txikiago aukeratu dira; eremuok auzo-guneak izan daitezke. Aztertuko diren eremuen **aukeraketa-irizpideak** ikerketaren lehen fasean zehaztuko dira, besteak beste, irizpide hauek kontuan izanda:

- Interes soziolinguistikoa duten eremuak.
- Guraso gazte asko biltzen dituzten eremuak.
- Edota, kale-erabilera datuei erreparatuta bilakaera positiboa edota negatiboa izan duten eremuak.

Larreak adierazi duenez, lau fase aurreikusten dituzte:

- 1.- **Behaketa**: ikerketan parte hartuko duten gurasoen profila edo ezaugarriak definituko dira.
- 2.- **Banakako elkarrizketak**: Bilboko hiztunak eta eurek hizkuntzarekin duten lotura ezagutzea litzateke helburua.
- 3.- **Talde-elkarrizketak**: hiriko hiztunak elkarlanean jarriko dira eta euskarari atxikitako proposamenak zein aurreikuspenak irudikatuko da. Hitz gutxitan, hiztunek euskararekin nahiko luketen harremana zirriborrazeko ahalegina egingo da.
- 4.- **Dinamika-partehartzailea**: prozesu osoan jasotako materiala antolatu, aztertu eta landuko da.

Honako hauek osatuko dute ikerketa taldea:

- Ikerketaren Zuzendaria: Jaime Altuna Ramirez (EHUko Gizarte Antropologiako ikerlaria eta irakaslea)
- Ikerketaren koordinatzailea eta ikerlaria: Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria)
- Ikerlaria: Josu Ozaita Azpiroz (Antropologo ikerlaria)

Azalpenaren ostean, Ana Viñalsek egin du galdera: Nor hartzen da guraso gaztetzat?

Imanolek esan duenez, guraso gazte berriak hartuko dira kontuan, haur txikiak dituztenak, hau da, hizkuntza praktikak aldatzeko potentzialitatea dutenak.

Jarraian, Asier Gonzalezek hartu du hitza, batetik, Imanol Larreari animoak emateko, etorkizuneko erronkei begira; eta, bestetik, guraso gazteen ikerketa dela eta, proposamen bat egiteko: ikerketan kontuan har ditzatela Bilboko auzoen errealitateak. Berak 3 maila ikusten ditu behintzat: Zorrotza-Abusu (top), Deustu edo Santutxu (top), Miribilla, auzo gaztea (erdibideko zerbait).

### **3.- UDALAREN EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIA: 2023KO BERRIKUNTZAK**

Mari Jose Arrietak, Euskarako zuzendariordeak, hartu du hitza 2023ko deialdiaren oinarritzko informazioa emateko. Hasteko, aurrekontua nabarmen handituko dela adierazi du:

Aurrekontua: **700.000 euro**. 2022an baino **480.000 euro gehiago**.

Helburua euskaltegi homologatuetan ikasten ari diren bilbotarrei euskara ikasteko dirulaguntza ematea dela esan du, eta horretarako baldintza batzuk bete behar direla, **azpimailaren bat gainditzea**, kasurako.

Hartzaileak honako hauek dira:

1. **Gurasoak:** 2009. urtetik aurrera jaiotako haurren gurasoak.
2. **Aisialdiko eta kiroleko begirale eta entrenatzaileak:**
  - a) Aisialdiko begirale-titulua edo kiroleko begirale- edo entrenatzaile-titulua izatea.
  - b) Aisialdiko begirale-titulua edo kiroleko begirale- edo entrenatzaile-titulua lortzeko ikasketak egiten aritzea.

Arrietak adierazi duen bezala, **malgutu egin da bigarren talde horretan sartzeko betekizuna**, ez baita lan kontratua eskatzen. Beraz, aisialdiaren eta kirolaren esparruan aritu daitezkeen pertsona potentzial guztiek izango dute aukera dirulaguntza eskatzeko, ikasketak egiten ari direnak barne.

3. **Errenta baxuko pertsonak**: talde honetan urterik urtera eskaerak handituz doazela esan du, eta aurten aurrekontu handiagoa dagoela ikusita, **errentako taula handitzea erabaki dela**.

Kide kopurua	Unitateko kide konputagarrien diru-sarrerak, guztira
1	22.239 €
2	37.962 €
3	51.528 €
4	61.194 €
5	68.397 €

Bukatzeko, hartzaile hauek zer dela-eta aukeratu zituzten azaldu du: batetik, familia transmisioan, **gurasoak funtsezkoak direlako seme-alabei euskara transmititzeko**; eta, bestetik, **aisialdian eta kirolean**, esparru horiek **gazteen euskararen erabilerari begira estrategikoak** direlako.

Azalpenaren ondoren, Juan Mari Aburtok hartu du hitza azpimarratzeko dirulaguntzak pertsonentzat direla, ez euskaltegientzat; hau da, baldintzak betetzen dituen edozein bilbotarrentzat, Bilbon zein Bilbotik kanpora ikasi.

#### **4.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA UDALEAN: 2017-2022 PLANGINTZALDIAREN EBALUAZIOA**

Berriro hartu du hitza Mari Jose Arrietak, oraingoan Euskararen Erabilera Normalizatzeke Planaren ebaluazioari buruz hitz egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeke prozesua Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak arautua duela adierazi du. Dekretu horren arabera, euskararen erabilera normalizatzeke plana onartu, gauzatu eta ebaluatu behar du entitate bakoitzak.

Bilboko Udaleko Erabilera Planaren ebaluazio lanean **datu kuantitatiboak** eta **kualitatiboak batu nahi** direla adierazi du; eta horretarako **bi ardatz** daudela identifikatuta:

<b>1. ARDATZA, ZERBITZU-HIZKUNTZA:</b>
1. Erakundearen irudia
2. Herritarrekiko harremanak
<b>2. ARDATZA, LAN-HIZKUNTZA:</b>
3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo-harremanak
6. Kudeaketa-sistema

Arrietaren esanetan, **datu aitortuak galdetegiaren bidez** jasoko dira; eta horrez gain, **behaketa bidezko datuak ere** batuko dira.

Bilboko Udaleko Erabilera Planaren ebaluazioa egiteko kontratua Siadeco enpresari esleitu zitzaion 2022ko azaroan.

Martxora arte egindako lanei dagokienez, honakoa esan du Arrietak:

- **Galdetegi bereiztuak sortu dira** udal ordezkarietzat, langileentzat eta euskara-koordinatzaileentzat. Otsailean bidali izan dira galdetegiak:

	Pertsona kopurua	Lagina galdetegirako	Galdetegiak bidalitako eguna
Udal ordezkariak	54	guztiak	Otsailak 10
Langileak	2.500	1.449	Otsailak 13
Euskara-koordinatzaileak	45	guztiak	Otsailak 14

- **Behaketa zuzenari** dagokionez, batetik, udaleko arreta-leku eta arreta-telefonoetako hasierako hizkuntza erabilerearen neurketa errealak egingo dira; eta, bestetik, udal bulegoetako helbide elektronikoko orokorretara eta Bilboko Udalaren webgunearen bitartez herritarrek euskaraz idatzitako mezu elektronikoei eta egindako kontsultei zein hizkuntzatan erantzuten zaien neurtuko da.

Bukatzeke, egindako galdetegi bidezko datu bilketen eta behaketa bidezko neurketen emaitza guztiak txosten batean jasoko direla esan du Mari Josek. Udazkenerako lan hori bukatuta egotea aurreikusten du, hurrengo planaren diseinuan buru-belarri jartzeko.



## 5.- HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEEN AURKEZPENAK UDAL ERAKUNDEETAN

Mari Jose Arrietak heldu dio gaiari. Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak, 2022ko otsailaren 16an egindako batzarraldian, Bilboko Udalean hizkuntzak kudeatzeko Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu zituen, eta, alkateak, ekainean, udal erakunde guztietako ordezkariari bidali zien Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen argitalpena, onartutako irizpideen berri emateko.

Irizpideen argitalpenarekin batera bidalitako alkatearen gutunean, **guztion konpromisoa ezinbestekoa dela** adierazi zen, eta udal erakundeetako ordezkariari jakinarazi zitzaion Euskara eta Hezkuntza Saitetik harremanetan jarriko zirela bilera baten bidez, erabakitako irizpideen berri zehatzagoa emateko. Izan ere, Bilboko udal erakundeek Udalak hizkuntza ofizialen erabilerarako onartu zituen irizpideen eragin-esparruan daude eta **neurriak hartu behar dituzte hizkuntza bien erabilera orekatua bermatzeko**.

Arrietak gaineratu duenez, udal erakunde bakoitzaren jarduera arloa oso bestelakoa da; beraz, udal erakunde guztiak batzar bakarrera deitu beharrean, **banakako batzarrak egitea erabaki zen**. Udal erakundeekin egin ziren batzar guztietan egitura bera erabili zen edukiarri dagokionez, baina **erakunde bakoitzaren ezaugarriei ondoen egokitzeko ahalegina** egin zen. Bakoitzaren jarduera eta egoera ezagutzeko, **galdetegi bat erantzuteko eskatu zitzaion udal erakundeetako ordezkariari**, bileraren aurretik informazioa izateko.

Euskarako zuzendariordearen arabera, izandako batzarren gaineko **balorazioa ona da** eta hurrengo plangintzaldiari begira nabarmendu du udal-erakundeekin harremanak sendotu behar direla era koordinatuan lan egiteko euskararen normalizazioaren alde.

Azalpenaren ondoren, Asier Gonzalezek hartu du hitza, esateko dirulaguntzak handitzea oso berri ona dela, erakusten duela ahalegin bat egiten ari garela.

Jarraian, Juan Maria Aburtok oratu dio berbari, eta adierazi du 2015ean, gaur eguneko gobernu-taldea udaletxera heldu zenean, euskararen aurrekontua 1.100.000 eurokoa zela, eta aurten, 2.100.000 eurokoa dela. Lanpostuei dagokionez, Euskara Zuzendariordean, hasieran 10 langile zeudela adierazi du, eta gaur egun 14 direla.

Jon Maguregi bat etorri da Asierrek esandakoarekin. Herritarrei erraztasunak ematea oso berri ona dela adierazi du, euskarara hurbildu nahi duenak mugarik ez izateko.

## **6.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK**

Bukatzeko, Juan Maria Aburtok parte hartu izana eskertu die batzordekideei, eta agintaldi honetako azkena izango dela adierazi du.

Bilbon, 2023ko martxoaren 16an

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA**

**Mari Jose Arrieta**